

Azoka ekologikoa joan da eta hamabostaldi ekologikoa dator



Irailaren 18an, eguraldi txakurrarekin baina giro onean egin zen Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren XVII. azoka. Jende asko elkartu zen festara euriari aurre eginda, eta beste behin ere Zerain nekazaritza ekologikoaren gune bihurtu zen. XAGUARTEAREN ale honekin batera, azoka eguneko argazkiekin ale berezia doakizue. Bestalde, azoka ekologikoaren ostean, Goierriko Bizitza eta Nekazaritza Ekologikoaren IV. hamabostaldia hasi da. Zeraini dagokionez, hilaren 20an hitzaldi bat egin zen, eta 27an izango da hurrengoa: "Sendabelarrak eta jateko diren belarrak" izeneko hitzaldia emango du Maialen Sarasolak. Horrez gain sukaldaritza makrobiotikoari buruzko ikastaroa egingo da urriaren 15ean hasi eta lau larunbatez jarraian, sozidadean. Parte hartu nahi izatera, 943087498 telefonora deituta izena eman behar da.

Errementarirako proiektuak ezagutzeko herri-bilera urriaren 1ean

Urriaren 1ean, larunbata, herri-bilera egingo da Zeraingo udaletxean goizeko 10:30etan hasita. Errementarik etorkizuneari nolako aurreraketa eman behar duen planteatzeko ideia-lehiaketa egin berri du Gipuzkoako Diputazioaren mende Etorlur elkarteak. Lehiaketa horretara 40 proiektutik gora aurkeztu dituzte arkitektoek. Irizpide teknikoak jarraituz, bost proiektu finalistak aukeratu ditu epaimahai batek. Orain bost horien artean aukeratzeko modua izango dugu herritarrok. Eta horretarako, aurrez proiektuak ezagutzeko aukera egongo da urriaren 1eko herri-bileran. Teknikoek aurkeztuko dituzte proiektuak herritarren aurrean, eta 1etik 5era puntuatu beharko ditugu.

Arantzazuko peregrinazioa



Irailaren 3an, Arantzazurako urteroko erromesaldia egin zen. Argazkian Zeraindik, Seguratik eta Mutiloatik joandakoak.

Kultur astea eta jubilatuen eguna urriaren amaieran

Urriaren 22tik 29ra bitartean egingo da aurtengo kultur astea. Oa kultur elkarteak prestatu duen egitarau zehatza aurrerago herrian zabalduko bada ere, aurrerapen moduan ekintza nagusiak honakoak izango dira:

Urriaren 22an, larunbata, goizean ume-jolasak eta marrazki-saioa izango dira, eguerdian kantu-bazkaria egingo da, eta iluntzean tortila lehia-keta. Hurrengo egunean, igandean, jubilatuen eguna izango da meza nagusi, bertsolari eta bazkariarekin. Astean zehar, astelehenetik ostirale-
ra, hainbat hitzaldi egongo dira iluntzetan. Hilaren 29an, larunbata, goi-



zean mendi-irteera egingo da Barbari aldera, eta hamaiketako ere izango da. Arratsaldean, berriz, Mixel

Etzekopar Iparraldeko musikariaren saioa egongo da. Horrela amaituko da aurtengo kultur astea.

Uda pasata, ikasturte berria hasi da



Udako oporraldia pasa dira eta kurtso berria hasi dugu. Udan, uzaileko hilabetean, haurrak herriko gazteekin denbora librean ibili dira; jolasak, ibilaldiak, festa eta abar egin dituzte elkarrekin. Egin dituzten ekintzetako adibidea dugu ondorengo argazkia,



San Fermin egunekoa.

Uda alde batera utzi eta irailean, kurtsoa hasteko, 4 haur berri gehiago ditugu, 4 guraso berri gehiago; bi mutiloak eta beste bi zeraindar, ongi etorri!

Iraila hastearekin batera, hasi gara gure lantxoetan, hala nola Maixuneko garbiketa egiten (argazkia). Eta urriaren 12an, goizeko 10etan plazan elkartuko gara Zeraingo herri mugen jarraipena egiteko; aurrez bi saio eginak ditugu eta hirugarren saioa izango da. Herritar oro gonbidatuta dago mendi eta auzo bueltatxo hau egitera!

Basarte Guraso Elkarte

Silo-bolen plastikoak biltzeko 2011-2012 kanpaina martxan da

Goimenek herriko baserritarrei jakinarazi nahi die, silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa zerbitzuaren aurtengo kanpaina martxan dela. Zerainen, hilean behin, 3. asteartean egingo da bilketa. Hauek dira 2011-2012 kanpainako egunak: irailak 20, urriak 18, azaroak 15, abenduak 20, urtarrilak 17, otsailak 21, martxoak 20, apirilak 17, maiatzak 15 eta ekainak 19.

Egun horietan biltzeko silo-bolen plastikoa atera nahi duenak bezperan egin beharko du, astelehenez. Eta Zerainen honako hiru puntuetan utzi ahalko dira hondakinak: Zabalegiko kanpan, Lumagorriren hiltegiaren alboan; Barbari auzoan Oporlekuren ondoan; eta Barbari auzoan Arrizabala baserriaren alboan.

Goimenek bereziki azpimarratzen du plastikoarekin batera sokarik ez ateratzeko, hauek ezin baitira birziklatu. Eta horrez gain, txukuntasun eta garbitasun kontuengatik, bilketa egunaren bezpera arte plastikoak ez ateratzeko dei egiten du. Edozein moduz ere, zalantzak dituenak edo bestelako argibideak nahi dituenak Goimenera dei dezake, 943161244 telefonora.

Jaulki

Galtzen ari diren hitz gehienak izenak dira, itxura denez: substantiboak. Gutxitan aipatzen ditugu galduz doazen adjektiboak. Gutxitan, era berean, aditzak edo berboak. Horrelakoa da gaurkoa: *jaulki*. Zer esan nahi du *jaulki* berboak, zeraindaren artean? Espelikazio luze samarra jaso du Elenak, han-hemen, Zerainen aditz horrekin zer adierazi ohi den zehazteko. Hona bere azalpena: hainbat landareri aletu egin ohi zaio fruitua edo hazia, eskuz edo haizeak eraginik. Artoak eta indoabak, esate baterako, sorotik bildu eta etxera eramandakoan jaulki edo aletu egin ohi dira. Gizakiok gara, askotan, garia, artoa edo indoaba jaulkitzen dugunak. Beti ez da ordea horrela izaten. Soroan bertan jaulkitzen dira zenbaitetan artoak, garia edo indoabak, helduta daudelarik euria egiten duenean edo haizete zakar samarra ateratzen duenean. Baserritarren kalterako izaten da hori, haizeak edo euriak jaulkitako alea ez baitago gehienetan biltzerik eta negurako gordetzerik.

Antzera gertatzen da zenbait zuhaitzekin, bai eta landare edota lore batzuekin: horiei ere jaulki egiten zaie hazia. Uztaoari ere bai: horri ere jaulki egiten zaio hazia, inguruko belaze-sailaren kalterako. "Berriri ere uztao ugari izango da zelai horretan!".

Mari Karmen Aranekori hala entzuna dio Elenak, joan den abuztuko iluntze batean, biak Mandion zeudela. Gaur egun ez da garirik ereiten Zerainen, baina garai batean etxe gehienetan izaten zen. Uztaile inguruan garia bildu eta jaulki egin behar izaten zen, eguraldi onarekin. Horregatik zerura begira egoten ziren beti, euririk egingo ote zuen. Soroan jaulki aurretik bildu behar zen garia. Honela esaten omen zen garai hartan, lasaitasuna adierazteko: "soron garie jaulkitzen ez daukagu behintzat, eta lasai egon gintezke". Edade batetik gorako zeraindarrek badakite *jaulki* zer den. Hortik beherakoek apenas. Hitzak zer adierazten duen ondo dakitenek ere ez dute beti-beti erabilt-

zen. Gero eta maizago, Elenaren ustez, *jaulki* ordez aletu esaten da herrian, baserritarren artean ere. Garia *jaulki* egiten zen lehen, beti, baina garirik ez da aspaldi egiten. Artoak eta indoabak, berriz, *aletu* egiten dira orain, gehienetan. Zenbaitetan hori ere ez: zakuan sartu eta jo egiten omen da indoaba, zenbaitetan, makila batez. Honegatik ez bada hargatik, aplikazio-esparrurik gabe gelditzen ari da *jaulki* aditza zeraindar askoren artean. Zer esan nahi duen dakitenek ez dute horren beharrik (garirik egiten ez delako eta artoak zein indoabak *aletu* egiten direlako *jaulki* ordez); gazteek, berriz, ez dute hitzaren aztarrenik ia.

Garbi dago ondorioa: substantiboenak bezala berbo-aditz batzuk ere galtzen ari dira. Gazte-gaztetxoan artean nabarmena da altxor-galtze hori. Hortik gorakoetan ere atzeraka doa hainbat hitz: batzuetan, gero eta gutxiago erabiltzen da; besteetan zirkulaziotik kanpora gelditu da dagoneko. Lehen multzokoa da gaurko *jaulki* hau: oraindik ez dago zirkulaziotik kanpora, erabat; noiz arte ordea?. Bistan Goizean goiz jaiki eta ilundu arte euskaraz ari diren zeraindar petoen artean ere ahulduz doa aditz horren presentzia. Jakin badaki, adin batetik gorako hainbatek, *jaulki* hitza zer den. Baina ez du hitz beharrik sentitzen. Motiboa, kasu honetan, bikoitza da: batetik, aditz horrek adierazten duen prozesua lekuz kanpora gelditu delako (gariaren kasuan); bestetik, prozesu hori adierazteko badutelako beste hitzik (euskarazko aditza kasu honetan, ez azken orduko mailegua) eta, beraz, hitz hori sobran dutelako. Hori da kontua, labur-labur esanik.

Kuriosidadez, beste hainbatetan bezala, OEH hiztegiari jo dugu, *jaulki* hitzaz zer dioten ikustera. Informazio aberatsa dakar. Hona zenbait ondorio. Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan erabiltzen da nagusiki *jaulki* hori: leku batzuetan *jaulki* esaten da, beste batzuetan *jalki* eta, Bizkaialdean batez ere, *jalki*. Adiera



Artoa ere *jaulki* egiten da.

nagusia Elenak esandakoa da: "caer el fruto maduro", "desprenderse de suyo algo, como los granos, fruta, etc." "caerse (la fruta de puro madura), por el ímpetu del viento", "desgranarse o salirse de su envoltorio los granos de castaña, avellana, etc.". Badu *jaulki* hitzak, hiztegiari, beste adierarik ere. Konkretuki hizkera jasoan, formal-dotorean, maiz idazten (hiztegi hortzera gutxitan esaten) da honelakorik: "ez da hitz lotsagarriarik, aho gaizto hari jaulkitzen ez zaionik", edota "hitzaldi harro, hanpatu eta labainak jaulkitzen zituzten". Lizardik idatzia du olerkirik (ez nago seguru ordea, buruz ari bainaiz), jaulkitako igaliez ari denik. Ikusten denez goiko lehen adieratik urrunsko gelditzen dira beste azalpen jasook. Hizkuntza bizirik ateratzen den neurrian bizi-aukera oparoa izan dezake ordea adiera jaso-formal-idatzizko horrek. Hitzaldi harro, hanpatu eta labainik jaulkitzen den artean bazterretan, ez da haren beharra galduko. Beharrak, berriz, galtzarbean ekarri ohi du sarri erabilera. Garia galdu zaigu soroetan, eta horrenbestez garia *jaulki* beharra. Hitz lotsagarriak entzuten diren artean, aldiz, halakorik *jaulkitzen* dutenei buruzko aipamenetan baliteke hitzak bizialdi luze eta oparoa izatea. Ea hala den.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

ABUZTUA	al	ar	az	og	or	lr	ig
	1	2	3	4	5	6	7
Euria (l/m)	0	1,25	0,75	0	0	6	4
C° altuena	34	30	28	34	33	34	29
C° baxuena	11	17	16	12	14	15	15
	8	9	10	11	12	13	14
Euria (l/m)	1	0	0	0	0	0	0
C° altuena	25	24	29	32	24	32	29
C° baxuena	14	9	11	12	16	15	13
	15	16	17	18	19	20	21
Euria (l/m)	0	0	2	6	0	0	5
C° altuena	26	33	34	31	34	41	41
C° baxuena	17	16	18	16	16	18	19
	22	23	24	25	26	27	28
Euria (l/m)	0	0	3	6	0	0	0
C° altuena	41	28	21	34	25	24	31
C° baxuena	18	18	16	16	13	11	8
	29	30	31				
Euria (l/m)	0	0	9	GUZTIRA : 44 l.			
C° altuena	20	33	31	ALTUENA: 41°			
C° baxuena	16	14	14	BAXUENA: 8°			

Abuztua lehorra eta beroa joan da

Abuztu hau lehorra eta beroa izan dela garbi dago ondoko datuak ilusita. Adramariak eguraldi ederrarekin pasa ditugu, ez horrela handik aurrerakoak. Hurrengo asteburuan 41° tara igo zen termometroa hiru egunetan; hondartzara edo pizsinara joan behar freskura bila. Uztailean ez bezala, belarrak ondu eta fardoak edo bola handiak egiteko giro bikainak izan dira.



Koreako nekazariak Zerainen bisitan



Abuztuaren azken egunean, Hego Koreako nekazari talde bat Zerainen izan zen bisitan, Euskal Herrira egindako bidaia baten baitan. Koreako nekazal kooperatiba bateko kideak ziren etorritako guztiak eta Euskal Herriko nekazaritza elkarteek gonbidatuta etorri ziren. Zerainen, herria bisitatzeaz gain, bertatik bertara Zeraingo herri-proiektua ezagutzeko aukera eduki zuten.

Gripearren aurkako txertaketa urriaren 6an

Osakidetzaren gripearren aurkako aurtengo kanpainaren barruan, txertaketa urriaren 6an, osteguna, egingo da Zerainen. Goizeko 8:30etatik 9:30etara bitartean izango dute aukera txertoa jarri nahi dutenek medikuaren kontsultara gerturatuta. Baina aurrez, txanda hartu behar da 943027700 telefonora deituta.

Mandio taberna itxita

Oporrak direla eta, Mandio taberna itxita egongo da urriaren 20tik azaroaren 10era bitartean.

Pinu-mozorroaren aurkako tratamendua

Pinu-mozorro edo beldarraren aurkako tratamendua egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia irailaren hasieratik. Eguraldiak laguntzen duen egunetan, Zeraingo pinudi gainetan ere ikusiko dugu abioneta.